

GRADU AMAIERAKO LANA

2015-2016 IKASTURTEKO SANTO TOMAS LIZEOA IKASTOLAREN GORPUTZ HEZKUNTZAKO AZTERKETA PEDAGOGIKOA

EGILEA: ARRIETA ARCE, JON

ZUZENDARIA: ETXEBESTE OTEGI, JOSEBA

JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZIENTZIETAKO GRADUA

2015 / 2016 IKASTURTEA

DEIALDIA: EKAINA

AURKBIDIDEA

1. SARRERA	4
2. AZTERKETAREN HELBURUA	5
3. MARKO TEORIKOA	6
3.1. IKUSPEGI DUALISTAREN GAINDITZEA	6
3.2. GORPUTZ HEZKUNTZA ETA AKZIO MOTORRAREN ZIENTZIA	6
3.3. GORPUTZ HEZKUNTZA GIZARTEKOITZE PROZESU GISA	8
3.4. EUSKAL KULTURA ETA JOKO JOLASAK	9
4. METODOLOGIA	11
5. IKASTOLAKO DATUAK	12
5.1. IKASTETXE MOTA	12
5.2. KOKAPENA	12
5.3. TESTUINGURU SOZIOKULTURALA	13
5.4. HEZKUNTZA PROIEKTUA	14
5.5. GORPUTZ HEZKUNTZA	16
5.6. GORPUTZ HEZKUNTZKAKO IRAKASLEA	17
5.7. IKASLEA – NERABEZAROA	17
6. AZTERKETA PEDAGOGIKOA	21
6.1. GIZARTEKOTZEA ETA HIRITAR EUSKALDUNA SORTZEA	21
6.2. GIZABANAKOAREN GARAPENA	23
6.3. LANKIDETZA ETA BIZIKIDETZA	25
6.4. GAITASUN ELEANITZA GARATU – HIZKUNTZAREN TRATAERA BATERATUA:	27
6.5. INGURUGIROAREKIN JASANGARRITASUNA BULTZATZEKO KONPROMISOA GARATU:	28
6.6. HELDUTASUN TEKNOLOGIKOA:	31
6.7. ANIZTASUNAREN TRATAERA:	32
7. ONDORIOAK	34
8. BIBLIOGRAFIA	37

IRUDIAK:

1. **Irudia:** Santo Tomas Lizeoaren kokapena.....13
2. **Irudia:** Santo Tomas Lizeoaren jolastokia.....29

DIAGRAMAK:

1. **Diagrama:** Santo Tomas Lizeoko Gorputz Hezkuntzako joko - jolas moten azterketa.....22
2. **Diagrama:** Santo Tomas Lizeoko Gorputz Hezkuntzako jarduera motorren denboraren azterketa.....23
3. **Diagrama:** Santo Tomas Lizeoko Gorputz Hezkuntzako jarduera motorren harremanen azterketa.....24
4. **Diagrama:** Santo Tomas Lizeoko Gorputz Hezkuntzako jarduera motorren harreman soziomotorren azterketa.....26
5. **Diagrama:** Santo Tomas Lizeoko Gorputz Hezkuntzako jarduera moten azterketa.....28
6. **Diagrama:** Santo Tomas Lizeoko Gorputz Hezkuntzako espazioaren erabileraren azterketa.....30
7. **Diagrama:** Santo Tomas Lizeoko Gorputz Hezkuntzako objektuen erabileraren azterketa.....31

1. SARRERA

Lan honetan Donostiako hirian kokatua dagoen Santo Tomas Lizeoa ikastolako 2015 – 2016 ikasturteko 4. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza mailako Gorputz Hezkuntzaren azterketa pedagogikoa garatzen da Hezkuntza Proiektuaren barnean. Hori egiteko, Gorputz Hezkuntzako azken hamarkadetan garatutako praxiologia motorra zientziaren ildo erabiliko da.

Lana aurrera eramateko lehenik eta behin, lagungarri izango den oinarri sendo bat ezartzeko asmoarekin, aipatutako zientziaren azalpena eta garapena ematen da marko teorikoaren barruan. Ondoren, ikastolako testuinguruaren, Hezkuntza Proiektuaren, Gorputz Hezkuntzaren, Gorputz Hezkuntzako irakaslearen eta ikasleen azterketa egingo da, amaieran lortutako datuekin Hezkuntza Proiektuaren helburu nagusiak Gorputz Hezkuntzan jorratzen diren aztertzeke. Datuak lortzeko eta, beraz, lana egiteko metodologia behaketa eta programazioaren inguruko informazio osagarriaren bilketa izan da.

Lanarekin lortutako ondorio nagusia, Gorputz Hezkuntzako 4. DBH mailan orokorrean Hezkuntza Proiektuaren helburu nagusiak lantzen direla da eta, beraz, ikastolak lortu nahi dituen hiritar eredu lantzen dela Gorputz Hezkuntzako maila honetan. Hala ere, komenigarria izango litzake etorkizunean osagarriak liratekeen beste mailetakoko gisa honetako azterketekin lan hau osatu ahal izatea.

Gradu amaierako lan honetarako gai hau aukeratzearen arrazoiak eta motibazioak ezberdinak izan dira. Alde batetik, bertan ikasle bezala izandako bizipenei eta orain graduko nahitaezko praktikekin edukitako bizipenei, ikastolako Gorputz Hezkuntzaren egoeraren hausnarketa sakonagoa gehitzeko aukera izan da. Bestetik, graduan zehar ikasitako jakintza ezberdinak lan honi esker praktikan jartzeko aukera izan dut; praxiologiaren erabilpena Gorputz Hezkuntzako alorrean esaterako. Gainera, lana baliogarria izan zait Gorputz Hezkuntzak ikastolan duen garrantzi handiaz jabetzeko eta baita ere ikasgai honekiko dudak atxikipena handitzeko; eta beraz, nire etorkizuna Gorputz Hezkuntzarekin lotuta egotea espero dut.

2. AZTERKETAREN HELBURUA

Azterketa honen xede nagusia Santo Tomas Lizeoa ikastolaren 4. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Gorputz Hezkuntzako saioetan Hezkuntza Proiektuan definitutako helburu nagusiak jorratzen diren edo ez aztertzea da. Beraz, maila honetako ikasgai honetan, ze motatako hiritar motak garatzen dituen ikastolak aztertuko da lortu nahi dituen hiritar motekin konparatuz.

Azterketa hori aurrera eramateko azken hamarkadetan garatu eta indarra hartzen ari den praxiologia motorraren zientzia hartuko da oinarritzat.

3. MARKO TEORIKOA

3.1. IKUSPEGI DUALISTAREN GAINDITZEA

XIX. mendetik aurrera, Gorputz Hezkuntzak eduki duen korrante nagusiena mugimenduan oinarritutako pedagogia izan da. Gorputza makina baten funtzionaltasun printzipio berean zentratuta, desplazatzen den produktu biomekaniko bat bezala kontsideratu izan da eta, beraz, Gorputz Hezkuntzan teknika eta mugimendu abstraktuari eman izan zaio garrantzia.

Azaldutakoa, mendebaldeko gizartean Greziarren garaitik XX. mendera arte egon den pertsonaren dualismoaren kontzeptuaren eraginez izan da. Non gorputza alde batetik eta arima bestetik, bi zatitan bereizten diren osagai bezala kontsideratu eta ulertzen zen. Hori horrela ulertuta, osagai bakoitza era ezberdinean landu egiten zen eta hortik datorkio Gorputz Hezkuntzari bere ikuspegi biologiko, biomekaniko eta fisiologiko hutsa (Dugas, During, & Madueño, 2006).

Ikuspegi dualista horrek ere, Gorputz Hezkuntzari definitze arazoak sortarazten dizkio; izan ere, gorputzean oinarritutako Gorputz Hezkuntza batez ari bagara hizketan, ezin dugu "hezkuntza" hitza erabili gorputza ez delako hezten baizik eta garatu egiten den osagaia da.

Gorputz Hezkuntzak pertsonak bere osotasunean eta bere heziketan, eta ez soilik bere mugimenduan, eragiten duela justifikatuz, Pierre Parlebasek Praxiologia motorra izeneko arlo berri bat perfilatu eta delimitatu egiten du Gorputz Hezkuntzaren alorrean iraultza suposatzen duena (Lagardera, 2004); Gorputz Hezkuntza jokabide motorraren pedagogia gisa definituz (Parlebas, 2012).

3.2. GORPUTZ HEZKUNTZA ETA AKZIO MOTORRAREN ZIENTZIA

Aipatutako definiziotik abiatuz, jokabide motorra, Parlebasek definitzen duenaren arabera "Portaera motorraren antolakuntza esanguratsua da. Jokabide motorra portaera motorra esan nahi eramailea da" (Parlebas, 2012). Beraz, irakasleak portaera motorrak behatuz sortzen dituen interpretazioetatik eta azkeneko hauei bilatzen dien esanahiak aztertzea da bere eginkizuna.

Behin azterketa eginda, portaera eta esanahi hauen moldaketa egin ahal izateko aukera edukiko du berak ezartzen dituen lehentasunen arabera. Horregatik, hezkuntza ideologikoa eta politikoa dela esaten da.

Gorputz Hezkuntza ez da berez zientzia bat baizik eta zientziaren praktika bat. Hala ere, emaitza zientifikoak erabili ditzake eta ikerketa berriak bultzatu (Parlebas, 2012). Beste hitzetan esanda, aurreko puntuan esan bezala, politikoa eta ideologikoa den hezkuntza aukeraketa hori egiteko, bere eskura duen zientzia erabiltzen du irakasleak eta kasu honetan Gorputz Hezkuntzaz hitz egitean, erabiliko den zientzia praxiologia motorrarena izango da. Honela definitu egiten du praxiologia motorra bere sortzailea den Pierre Parlebasek: “Akzio motorraren zientzia da eta bere baldintzak, funtzionamendu erak eta garapenaren emaitza aztertzea da bere funtzionamendua.” (Parlebas, 2012).

Jarduera mota bakoitzak, araudiak edo kontratu ludomotorrak eskatzen duen jokabide motor zehatz batzuk bultzatuko ditu. Hori dela eta, praxiologia motorrarentzat ez dago hobea edo okerragoa den praktika motorrik; baizik eta eraikitzen duen barne logikaren arabera eraketa ezberdinak eta konplexutasun maila ezberdinak dituzten jarduera motor ezberdinak daude (Lagardera, 2004).

Barne logika osatzen duten elementuen konbinazioetatik (harremana, espazioa, denbora eta materia), irakasleak erabili ahalko dituen sistema praxiologiko ezberdinak sortzen dira. Sistema hauek akzio motorren egoera motor ezberdinak era koherente eta zorrotz batean sailkatzen eta antolatzen dituen sistemak edo mapa teorikoak dira (Lagardera & Lavega, 2003).

Barne logikaren arabera, joko-jolas edo jarduera motor bakoitzak parte hartzailea era ezberdinetan inplikatuko dituen forma espezifikoa bat hartuko du (Parlebas, 2004). Beraz, horrek, jokalarietan esperientzia motor ezberdina sortaraziko du eta hauek ikasleak aurre egin eta menperatu beharko duten arazo motor ezberdinak bultzatuko ditu (Larraz Urgelés, 2004).

Egoera motor ezberdin bakoitzak jokabide motor zehatza lantzen du horregatik, sistema praxiologikoak erabilia dominanteenak edo nagusienak diren ezaugarriak kontutan hartuta, domeinuak izeneko beste sailkapen mota bat sortzen da. Hauek irakasleek erabiliko dituzte beren diseinu curricularra

prestarekatzoan. Horretan laguntzeko, Perez Lavega Burgués-ek “*Aplicación de la noción de conducta motriz en la enseñanza*” pasartean, jokabide motorren lanketa zehatz bat egiteko, domeinuen katalogo bat garatzen du jakiteko ze jokabide mota lantzen den domeinu bakoitzarekin (Lavega, 2004).

Sistema praxiologikora itzuliz, lehenengoa, Pierre Parlebasek sortutako Simplex-a izan zen. Bertan, kontutan hartzen ziren osagai edo irizpide nagusiak beste parte-hartzaileekin mantendutako harremanak (kideekin harremana - kooperazioa eta arerioarekin harremana - oposizioa) eta ingurune fisikoarekin harremanetan sortutako ziurgabetasunak izan ziren (Parlebas, 2012); alde batera utziz barne logika ere osatzen duten materiala eta denbora ulertzeko modu ezberdinen osagaiak (Lagardera & Lavega, 2003).

Hala ere, ez da sistema praxiologiko bakarra existitzen eta jarraian aztertuko den bezala, lurralde, kultura, gizarte eta ideologiaren arabera, praxiologiaren adarreko autore ezberdinek beren domeinu katalogoa sortu dute beren inguruneko ezaugarrietara hobekien moldatuz (De Marimon, 2004).

3.3. GORPUTZ HEZKUNTZA GIZARTEKOITZE PROZESU GISA

Esan bezala, praxiologia motorrak eskaintzen duen ildo berri honekin jarraituz, Gorputz Hezkuntzan haurraren nortasuna bere osotasunean lantzen hasten da, kulturaren barneratze eta gizartekoitze prozesu baten barruan. Izan ere, egiten diren gorputz praktika guztiek, gorputza inplikatzeko duten garai, leku eta talde bati dagokien arau eta balore batzuk transmititzen dituzte (Parlebas, 2012).

Jarduera motor guztiak, joko-jolasak, kirolak,... interbentzio kultural eta sozialak dira. Sortu diren komunitatearen ezaugarriak dituzte eta eurak onartutako arau batzuekin gidatzen dira eta, hortaz, gizarte talde bakoitzak gorputz erabilera oso ezberdina dauka.

Esan bezala, gorputz teknika guztiak eta motrizitatea orokorrean ez da naturala baizik eta kulturala da eta horrek etnomotrizitatea kontzeptuaren sorrera bultzatzen du. “Jarduera motorren arloa eta izaera dira, garatu diren kulturaren eta gizarte ingurunearen ikuspuntutik hartuta” (Parlebas, 2012).

Gizartekotze prozesuan zentratuz, eskolak bertan ikasten den guztiaren aplikagarritasuna eskolatik kanpo bilatzen du. Beste era batean esanda, eskolak haurrak prestatzen ditu bizitza arruntari aurre egiteko eta gizartean integratzeko.

Hori kontutan hartuta, Gorputz Hezkuntzan lantzen den jokabide motorra, ondoren bizitza errealean aplikagarria izan behar da. Bertan hurrei, hiritar ideia ematen zaie eta horregatik esan daiteke Gorputz Hezkuntzan hiritartasun ideia islatu behar dela. Beraz, Erik Dugasek jorratu eta definitutako batetik besterako, bizitza arrunterako, transferentzia egon behar da (Dugas, 2004).

Hasieran aipatutako, domeinuak ere kulturaren arabera izango dira. Lurraldearen arabera, kultura eta sozializazio ezberdinak eraginda, Gorputz Hezkuntzan landu beharreko jokabide motorren domeinuak ezberdinak izango dira. Horregatik, lurraldearen arabera domeinu ezberdinetan antolatutako proposamen (Lavegaren katalogoa) edo diseinu curricularrak aurkitu ditzakegu (Alfredo Larraz Urgelés-ek egiten duen Aragoiko autonomia erkidegoko Lehen Hezkuntzako akzio motorrean oinarritutako diseinu curricularra) (Larraz, 2004).

Euskal Herrian beraz, Lleidako, Aragoiko edo beste lurraldeko ezberdina eta propioa den Gorputz Hezkuntza eredu bat aurkezten du Joseba Etxebestek.

3.4. EUSKAL KULTURA ETA JOKO JOLASAK

Joko-jolas motorrak dira haurtzaroan jokabide motorrak eta kultura definitzen eta egituratzen laguntzen duten egoera nagusiak. Izan ere, haurren jolasak bertako kulturaren ezaugarriak dituen sozializaziorako elementu garrantzitsuenak dira (Etxebeste & Urdangarin, 2004).

Hori gertatzen da jarraian azalduko diren arrazoiengatik (Etxebeste & Urdangarin, 2004):

1. Joko-jolasak umeen jarduera nagusia dira eta horretara dedikatzen diote esklusiboki bere denbora eta esfortzu handiena.
2. Haurren barne dinamika hoberen definitzen duten jarduerak dira.
3. Kirol jolasa haurtzaro tradizionalaren jarduera nagusi eta garrantzitsuena da.

Sozializazio hau, beraz, hezkuntzan eta bereziki Gorputz Hezkuntzako saioetan oso kontutan hartu beharreko elementua izango da (Etxebeste & Urdangarin, 2004). Emilie Durkheim soziologoa ideia honetatik haratagoa doa hezkuntza berez erakunde soziala dela nagusiki esanez (Durkheim, 1975).

Horregatik, Euskal Herriko kultura eta sozializazio tradizionala aztertzeko, Joseba Etxebestek, "Juegos infantiles en vasconia" joko bilduma erabili zuen. Arauen eta kanpo logikaren eraginez, jolasen barne logika osatzen zuten elementu guztiak kontutan hartuta (espazioa, jokalaririk, denbora eta objektuak), euskal gizartearen sozializazio, gizartekotze eta kultura beharren, joko-jolasen sistema praxiologiko propioa sortu zuen.

Sistema honi esker, Euskal Herriko sozializazio motor tradizional aztertzeaz gain, gaur egungo sozializazioa aztertzeko ere balio du. Bestela esanda, egindako analisi horrek euskal tradizioaren marko kultural eta soziala jarrita, Gorputz Hezkuntzako saioetan egiten dena kontabilizatzeko eta analisi estatistikoak ateratzeko balio digu. Ondoren, Gorputz Hezkuntzan egin nahi dena, egiten dena eta errealitateak eskatzen duenaren arteko konparazioa egin eta hausnarketa egin ahal izateko (Etxebeste & Urdangarin, 2004).

Horrez gain, sortutako sistema hau ere baliogarria da, Aragoiko hezkuntzako kasuan Alfredo Larráz Urgelés-ek egiten duen bezala, diseinu curricular bat egiterako orduan.

4. METODOLOGIA

Definitutako lanaren helburuak lortzeko, ikastolako Gorputz Hezkuntzako saioetako behaketa eta testuinguru pedagogikoaren datu bilketa lanak egin dira. Saioen behaketatik lortutako informazioa irakaslearen metodologia, proposatzen dituen jardueren izaera, saioen antolaketa, programazioa,... izan da besteak beste.

Behaketa bidez lortu ahal izan ez den informazio osagarria lortzeko, irakaslearekin egindako elkarrizketaz eta berak emandako urteko ikasgaiaren programazioaz baliatu naiz. Horri esker, egon ez naizen saioetako nondik norako guztiak xehetasunarekin aztertzeke aukera eduki dut, ondoren 4.DBH-aren kurtso osoaren Gorputz Hezkuntzako ikerketa burutu ahal izateko. Guztira beraz, kurtsoan zehar Gorputz Hezkuntzari eskaintzen zaizkion hiru ebaluazioetan banatutako 55 minutuko 65 saio behatu dira.

Ikastolaren testuinguru pedagogikoa ulertzeko egindako behaketaz eta elkarrizketez gain, zentroko dokumentu bilketa ezberdina egin da. Arreta berezia eskainiz aztergai den Hezkuntza Proiektuaren helburu edo xede nagusiei.

Datu bilketa eta dagokion azterketa egin ondoren lortutako emaitzak barra eta sektoreetan banatutako diagrametan adierazi dira, hauek era argiago batean ikusi ahal izateko eta ondoren Hezkuntza Proiektuaren helburu nagusiekin bat datozen aztertzeke.

5. IKASTOLAKO DATUAK:

5.1. IKASTETXE MOTA:

Santo Tomas Lizeoa ikastola "D" eredia jarraitzen duen zentroa da eta beraz, euskara da erabiltzen den hizkuntza nagusia. Hala ere, beste hizkuntza batzuk jorratu eta ikasten dira dagokien ikasgaiaren barruan; besteak beste, Gaztelera, Ingelera eta Atzerriko Hizkuntzetan (hautazkoa) Alemanera eta Frantsesa.

Eskola, 180 langilek, 1200 familiek eta 1728 ikaslek osatzen dute. Azken hauek, hezkuntza ibilbide luze bat egiteko aukera dute bertan; bi urte dituztenetik hasita, batxilergoa bukatu arte, etapa guztiak barne hartuta (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilerra). Beraz, eskolak, hezkuntza formazioa ibilbide osoa eskaintzen du eta bertan ume izatetik heldu izaterako prozesu guztia bizitzen dute. Gainera norberak, DBH-tik hasita bere ibilbide propioa egiteko aukera dauka hartzen diren adar eta ikasgai ezberdinen eraginez.

4/5 lerroko zentroa da; hau da, maila bakoitzeko 4 (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza) edo 5 gela (DBH eta Batxilerra) daude.

Santo Tomas Lizeoa, partaidetza sozialeko ikastola bat da, gurasoen kooperatiba alegia eta bertan lantzen den hezkuntza ikuspegi emankor, ireki, laikoa eta zabala dauka.

Amaitzeko, Lizeoa hezkuntzaren bitartez gizarteratua dago. Gizarte horren eraketarako oinarrizko helburu partekatuak ditu beste ikastolekin – Euskal Herriko Ikastolen Elkarte – eta horiekin harreman egonkorrak mantentzen ditu, elkarte-helburuak batera landu edota elkarrekin trukatzeko.

5.2. KOKAPENA:

Donostiako Ibaeta auzoan kokatuta dagoen ikastola da. Zentroak dituen 34.000 metro karratuak Ibaetari dagozkion arren, auzoaren zentrotik pixka bat bazterturik aurkitzen da, Berioko auzoarekin muga eginez. Inguruan, Santa

Teresa Ikastola, EHU Gipuzkoako Campusa, Tecnun-eko Unibetsitatea eta “El Diario Vasco”-ren egoitza nagusia ditu.



1. irudia: Santo Tomas Lizeoaren kokapena.

5.3. TESTUINGURU SOZIOKULTURALA:

Ikaslearen gehiengoa, ikastola inguruko auzotarrak dira Ibaeta, Berio, Antiguu,... besteak beste. Hala ere, badira Donostiako beste auzoetako eta inguruko herrietako ikasleak ere (Hernani, Lasarte, Errenteria,...).

Hauek, orokorrean, maila soziokultural ertain edo ertain – handiko familiakoak dira eta beraz, beraien behar minimoak behar bezala asetuta dituzte. Gizartean ondo integratutako ikasle eta familiak dira eta azken hauen ehuneko handi batek goi – mailako ikasketak dituzte.

Orokorrean beraz, dibertsitate gutxiko ikasleak ditu ikastolak, salbuespenak salbuespen.

Zentroak, euskal kultuaren aldeko apustu argia egiten du eta euskararen aldeko konpromiso handia erakusten du bere eguneroko jardueretan bai eta parte hartzen duen herriko jarduera ezberdinetan ere (danborrada, inauteriak, kaldereroak,...).

5.4. HEZKUNTZA PROIEKTUA:

Lege aldaketak direla eta, Santo Tomas Lizeoko Hezkuntza Proiektua eraberritze prozesu batean murgildurik dago. Eraberritze prozesua lehendik martxan zegoena abiapuntutzat hartuta hausnarketa sakon bat egitean datza gizarte eta lege berrien eskakizunekin bat etorriz.

Hori dela eta, jarrian, Hezkuntza Proiektuaren hildu nagusiak aipatuko dira.

Santo Tomas Lizeoa jaio zenetik komunitate **euskalduna** da eta euskal ondarea zaintzeaz arduratu egiten da. Beraz, Hezkuntza Proiektuaren ezaugarri nagusia euskalduna dela da. Horrez gain, **bikaintasuneranzko** apustu garbia egiten du. Hori lortzeko, bere esku dituen indar eta baliabide guztiak, bai materialak bai eta pertsonalak erabiltzen ditu.

Ikastolaren Hezkuntzaren definizioa bat dator, UNESCO-k eman zuenarekin eta hau jasoa dago 2004ko euskal curriculumaren atarian. Hau da, *“Hezkuntzaren eginkizun nagusia, gizartekoitasunezko dimentsioan uztartuz, **gizabanakoaren garapena bideratzea** da. Hezkuntza, kulturen eta baloreen eramailea da, gizarteratzeko bidea eta egitasmo bateratua eraikitze gunea. Hezkuntzari dagokio, haur eta gazteengan egoera fisiko, intelektual eta moralari buruzko jakintza dizut eta garatzea, gizartean heldutasun – maila egokiarekin integratuak izan daitezen.”* (Santo Tomas Lizeoa, 2014).

Hori lortzeko, ikastolak, XXI. mendeko irakasleen lankidetzeta eta etengabeko prestakuntza – hobekuntza prozesua bultzatu eta ahalbidetzen du. Era berean, beste ikastolakoekin elkarlanean jarraitzen du Ikastolen Elkartean parte hartuz era aktibo batean.

Jarraian Hezkuntza Proiektua osatzen duten plan eta proiektu garrantzitsuenak aipatu eta azalduko dira:

➤ **BIZIKIDETZA PLANA: ESKOLA GIROA:**

Santo Tomas Lizeoa partaideen bizikidetzan oinarritutako ikastola da. Garrantzi handia du beraz, eskolak duen barne giroa.

Eskolak XXI. mendeko hiritar konpetenteak prestatu behar ditu gatazka interperpersonal, sozial eta kulturalak kudeatzen jakingo dutenak. Horretarako, balio eta irizpide demokratikoetan oinarritzen da eskolako bizikidetzak.

➤ *HIZKUNTZA PROIEKTUA - ELEANIZTASUNA:*

Eskolaren beste zeregin nagusietako bat, kalitatezko hezkuntza eleaniztasuna ziurtatzea da. Beste hitzetan esanda, gaitasun eleaniztasuna garatzea lortu behar du, betiere euskararen biziberritze – prozesuari lagunduz eta euskal kulturaren sustapena bermatuz. Helburu hori lortzeko hizkuntzaren trataera bateratua abian dago.

➤ *INGURUGIRO HEZIKETA PLANA – JASANGARRITASUNA BULTZATZEKO HEZKUNTZA:*

Jasangarritasuna bultzatzeko hezkuntza baten aldeko konpromisoa areagotzea da ikastolak duen erronka. Horretarako ezinbestekoa da hezkuntza maila formalak zein informalak zeregin honetan jardutea.

➤ *IKT – HELDUTASUN TEKNOLOGIKOA:*

Egungo garapen teknologikora egokitzeko bidean, multimedia gizartean bizi garenez, hezkuntzan baliabide teknologikoak integratzean datza IKT programa. Baliabide teknologiko berri horien erabilpenean trebatu nahi dira ikasleak komunikaziozko bide berriak ezagutzeko, lan egiteko modu berriak praktikan jartzeko,... eta azken finean natibo digitalak diren ikasleak baliabide hauek kudeatzen erakusteko.

➤ *PROIEKTU CURRICULARRA:*

Konpetentzien lorpenetan oinarritutako Proiektu Curricularra dauka ikastolak. Ikasturte honetan, jarri da lehen aldiz EKI (Euskal curriculumaren Konpetentzietan oinarrituta Integrazioaren pedagogia) izeneko konpetentzien proiektua. Honekin bi egitasmo bultzatzea eta lotzea du helburu; alde batetik, euskal ondarearen transmisioa eta bestetik, konpetentzien bidezko curriculumaren ezarpena; hots, jakitea eta egiten jakitea.

➤ *ANIZTASUNAREN TRATAERA - ESKOLA INKLUSIBOA:*

Aniztasunaz ari garenean kasu ugariaren inguruan ari gara hitz egiten (famili eredu ezberdinak, urritasun fisiko edo psikikoa duten pertsonak, baliabide ekonomiko ezberdinetakoak, jatorri desberdineko etorkinak eta atzerritarrak, ideologia eta sinesmen ezberdinak,...).

Aniztasun hori gizartean dago eta hori eskolaren errealitatean islatzen da. Horregatik horri aurre egiteko ikastolak hainbat egitasmo ditu indarrean: DBH-ko aniztasun ibilbideak, Lanbide Heziketara bideraturiko Batxilergoa, HH-ko psikomotrizitate taldeak, Logopeda zerbitzuak, Hezkuntza Premia Bereziko irakasle espezialistak eta Orientazio Departamentua besteak beste.

Ikastolak jatorri, gaitasun, maila akademiko, nahi,... ezberdinak dituzten talde heterogeneoak kudeatzen ditu eta ikasle bakoitzaren trebakuntza integrala lortzea du helburu nagusizat.

5.5. GORPUTZ HEZKUNTZA:

Hezkuntza Proiektuaren ildo eta helburu nagusiak ezagututa, Gorputz Hezkuntza aztertzerako pasatzeko momentua da. Gorputz Hezkuntzak ikasleak gutxieneko helburu batzuk bereganatzean oinarritutako konpetentzia batzuk garatzen ditu eta hauek aurrera eramateko gai – multzo ezberdinetan banatu egiten dira.

Lehendik esan bezala, aztergai den 4.DBH-ko mailan garatu behar diren helburuak besteak beste, osasuna bere osotasunean ulertzea eta zaintzea, norberaren gorputzaren irudi egokia izaten laguntzeko jarduerak planifikatzea eta gauzatzea, egoera fisikoaren berri ezagutzea eta zaintzeko beharrez konturatzea,... dira.

Beraz, ikusi daitekeen bezala, ikastolako Gorputz Hezkuntzak duen diskurtsoa nagusiki osasunera bideratutakoa da; non emozioen lanketa hamasei helburuetatik behin besterik ez da aipatzen. Horregatik Gorputz Hezkuntzak, aurretik aipatu den bezala, zaharkitua dagoen gorputz lanketari egiten dio erreferentzia nagusiki.

Hiru dira 4.DBH mailan garatzen diren gai – multzoak: egoera fisikoa, gorputz adierazpena, banakako eta taldekako kirolak. Dударik gabe, lehenengoari da denbora gehien eskaintzen zaion gai – multzoa; izan ere, ebaluazio bakoitzean lantzen bai da era ezberdin batean (indarra, malgutasuna + abiadura eta erresistentzia). Programa aurrera eramateko, astean 55 minutuko 2 saio eskaintzen zaizkio horren garrantzitsua den Gorputz Hezkuntzako ikasgaiari.

5.6. GORPUTZ HEZKUNTZAKO IRAKASLEA:

Santo Tomas Lizeoa ikastolan Gorputz Hezkuntzako hiru irakasle daude DBH eta Batxilergoan eta hauen artean maila eta talde ezberdinak banatu egin dituzte. Aztergai den 4. DBH maila bi irakasleren artean ematen den arren bereziki bat da bere garapenaz eta programazioaz arduratzen dena eta baita ere nire praktikaldian erreferentziazko taldearen irakaslea.

Irakasle bezala, esperientzia handia duen pertsona da. Zehazki, ikastolan hogeita sei urte darama Gorputz Hezkuntzako irakasle gisa eta aurretik bi ikasturte Orereta ikastolan egon zen kirol koordinatzaile moduan. Beraz, guztira hogeita zortzi urte eman ditu hezkuntzan lan egiten.

Irakasle hau, berez, Pedagogian lizentziatua da Donostiako Euskal Herriko Unibertsitatean baina Gorputz Hezkuntzako irakasle aditu bat bilakatu egin da urteen poderioz eta, batez ere, bere kabuz ikastearen ondorioz.

Kirolarekiko atxikimendu handia du eta oso pertsona aktiboa eta hori bere Gorputz Hezkuntzako saioetan islatuta ikusten da. Berarekin egindako elkarrizketak eta behaketa lanen ondorioz, programazioa bere pentsaeraren erreflexua dela ondoriozta daiteke; osasunera eta gorputzaren lanketara bideratutako gorputz hezkuntza alegia.

5.7. IKASLEA – NERABEZAROA:

Gizartekotze prozesuan, Alfredo Larraz-ek aipatzen duen bezala, ez da ahaztu behar, ikaslea dela hezkuntzako elementu nagusia, zentroa hain zuzen (Larraz, 2004). Ikastolan, ikaslea haur izatetik heldu izaterako garapen prozesu hori ematen da.

Aztergai den Santo Tomas Lizeoko DBH 4. mailako ikasleen adina 15 - 16 urte bitartekoa da eta beraz nerabezaroaren etaparen amaieran murgildurik daude. Nerabezaroa 11 – 17 urte bitartean ematen den aldaketa etapa da. Hori dela eta, ezinbestekoa da irakaslearentzat, ikasleentzat hain konplexua den etapa horien inguruko ezaugarri nagusiak ezagutzea, ondoren ikasturtea planifikatzerako momentuan horiek kontutan hartzeko.

Nerabezaroa haur heldu gabe izatetik pertsona sexualki heldua izatera arte ematen den aldaketa etapa bezala definitzen da. Horrek, aldaketa ugari ekarriko ditu jarraian aztertuko den maila ezberdinetan (Berger & Thompson, 1997).

➤ ALDAKETAK MAILA BIOLOGIKOAN:

Maila biologikoan ematen diren aldaketak elkarloturik dauden prozesu biologiko ezberdinengatik gertatzen dira. Hormona ezberdinen jariaketarengatik (hormona sexualak, hazkuntza hormonak,...) 3-4 urte inguru irauten duen prozesuan, fisikoari dagokionez, aldaketa ugari ematen dira. Bertan haur gorputza izatetik, heldu (gizon – emakume) gorputza izaterako metamorfosia ematen da.

Egutegia oso aldakorra da; pertsonaren eta eragin faktore ezberdinen araberakoa izaten da: sexua (neskek mutilek baino lehenago), kultura, ondoretasun genetikoa, gorputz mota, nutrizioa, osasun fisiko eta mentala,... (Berger & Thompson, 1997).

Aldaketa fisiko horiek besteak beste honakoak dira (Berger & Thompson, 1997):

- Hazkuntza erritmoak piko bat edukitzen du eta beraz nesken kasuan urte azkarrean 9 zm-ko hazkundera egoten da bataz beste eta gizonetan 10 zm-ko hazkundera.
- Hazkunde piko horiek ez dira aldi berean eta erritmo berean ematen eta horregatik asinkroniak gertatzen dira (Hoffman, Paris, & Hall, 1996). Normalean, lehenik gorputz adarrak hazten dira eta ondoren gorputz enborra.

- Nerabezaroaren amaieran organo ezberdinak tamaina eta formaz aldatzen dira: birrikak, bihotza,...
- Organo sexualen garapena ematen da eta horrekin batera menarkia eta expermarkiaren agerrera.
- Bigarren mailako aldaketa sexualak gertatzen dira.

➤ ALDAKETA MAILA PSIKOLOGIKOAN

Gorputza aldatzen den heinean, norberaren gorputz irudia ere aldatzen joaten da. Horrek, kultura bakoitzak ezarritako gorputz idealaren ideiarekin konbinatuz, norberaren identitatean, auto-estimuan eta bere buruaren irudian eragin zuzena izan dezake (Hoffman et al., 1996).

Kultura bakoitzak, sexu bakoitzarentzat gorputz erakargarri eta egokiena zein den definitu egiten du eta ondorioz nerabeak, ideal hori bere gorputz irudiarekin alderatu egiten du, erreakzio mota eta emozio ezberdin ugari bultzatuz: harrotasuna, plazerra, deserosotasuna, lotsa,... Sentimendu horiek nerabearen auto-estimuan eta identitatearen eraiketan eragin zuzena edukiko dute.

Oso ohikoa izaten da nerabezaroan auto-estimua jaitsiera gertatzea eta horrekin "Ni" identitatearen barne krisia ematea. Hau konpondu egiten da nerabeak bere identitatearen zentzu unitario bat sortzen eta finkatzen duenean: identitate sexuala, politikoa, morala eta bokaziozkoa (Berger & Thompson, 1997).

Identitatearen eraketaren ideiarekin jarraituz, "Psicología del desarrollo hoy" liburuan eraketa hori nerabearen eginkizun nagusitzat definitzen da. Izan ere, garai honetan etorkizunerako erabakigarriak izango diren eginkizun eta erabakiak hartzen dira (ikasketak, bokazioa, familia,...) eta horiek etorkizuneko gizon-emakumearen identitatea eta gizartean izango duen funtzioa definituko dute (Hoffman et al., 1996).

➤ ALDAKETAK MAILA KOGNITIBOAN:

Haurra tangiblea edo hautemangarria den errealitatera mugatu egiten da, baina ematen den garapenaren ondorioz, nerabea gai da sistema formalak

eskaintzen duen espekulazioak, hipotesiak eta beste teoriak erabiliz dedukzioak egiteko. Horiek erabili egiten ditu ondoren esperientzia praktikoan bilakatzeko (Berger & Thompson, 1997).

Arrazonamendu gaitasun formal horrez gain, arrazonamendu abstraktuak egiteko gai bihurtzen da nerabea; horregatik maitasuna, justizia, bizitzaren zentzua,... bezalako gaiak uler ditzake beti ere muga batzuk edukiz.

➤ ALDAKETAK MAILA SOZIALEAN:

Maila kognitiboan ematen den garapenarekin, nerabea bere inguruan dauden ama, familia eta gertuko lagunaz jabetzeaz gain, inguratzen eta parte den gizarte eta bere kultura errealitateaz jabetzen da. Bertan bere tokia bilatu eta bertako arau sozialak bereganatu beharko ditu (Le Bolulch, 1997).

Harreman sozialei dagokienez, lagunak oso paper garrantzitsua hartzen dute. Nerabeek beren burua sozialki onartuak izateko beharra ikusten dute eta horregatik talde bateko partaide bilakatzen dira bertako arau sozialak onartuz eta bereganatuz . Euskal kulturaren gertakizun hori haratago doa “kuadrilak” duen garrantzia ikusita (Tejerina, Carbajo, & Martínez, 2012).

Guraso eta familiek ere, sozializazioan garrantzi handia dute; eta lagunekin batera, elkarren osagarri diren funtzio sozializatzaile garrantzitsua hartzen dute (Berger & Thompson, 1997).

6. AZTERKETA PEDAGOGIKOA

Aurretik azaldutako Hezkuntza Proiektuaren helburu eta ildo nagusiak Gorputz Hezkuntzako saioen edukiakin bat egiten duten aztertuko da jarraian.

6.1. GIZARTEKOTZEA ETA HIRITAR EUSKALDUNA SORTZEA:

Eskolan aurrera ematen diren jarduera motor guztiak, interbentzio eta eraikin kultural eta sozialak dira eta beraz, gorputza inplikatzen duten garai, leku eta talde bati dagokien arau eta balore batzuk transmititzen dituzte (Parlebas, 2012). Hori dela eta, hauek praktikan jartzean ezinbestean gizartekotze prozesua ematen da eta hiritarrak garatu egiten dira.


Gakoa eta eztabaida, ikastolak zein motatako euskal hiritarra sortu nahi dituen da; ea nola ulertzen duen eskolak zer den euskal kulturaren ondarea barneratzea. Hori ulertzeko aurrera eramaten diren jardueren kanpo logika eta barne logika aztertzea da komenigarriena.

Ikasturtean zehar lantzen diren edukiak aztertuta boleibola, saskibaloia, ultimatea, softball-a,... bezalako kirol joko internazionaleri bertakoak diren joko – jolas tradizionalei baino garrantzia eta denbora askoz handiagoa eskaintzen zaie. Gureak kontsideratzen ditugun jarduera lokal hauek (sokatira, lokotx bilketa,...) bigarren maila batean geratuz eta soilik ikastolako egun berezietan praktikan jarritz: olinpiadetan, Santo Tomas egunean, kurtso amaierako egunean.. besteak beste.

Jarduera moten ezberdintasun horrek agerian uzten du ikastolak duen euskal hiritar kontzeptuaren ulermen irekia, globala eta europarra. Eta beraz argi geratzen da sortzen dituen hiritarrak, euskaldunak direla baina munduko eta Europako hiritarrak ere kontsideratuz.

Jardueren barne logika osatzen duten 4 elementu nagusiak kontutan hartuta (espazioa, harremanak, denbora eta objektuak) eta Joseba Etxebestek definitutako euskal joko – jolasen sistema praxiologikoa erabiliz, euskal kulturako zein eredu, joera eta jokabide motor garatzen den azter daiteke.

Lortutako datuek adierazten dute egiten diren jardueren gehiengoa, %61a esaterako, jokoak direla. Bigarren maila batean geratuz jolasa – jokoak %37 eta azkenik, ia landu gabe utziz jolasak %2ko emaitzarekin.



1. Diagrama: Santo Tomas Lizeoko Gorputz Hezkuntzako joko – jolas moten azterketa.


Horrek nabarki adierazten du ikastolan gehien lantzen den jokabidea jokoak eskaintzen duen gizon – plazaren eredia dela. Eredu publikoa hain zuzen eta, beraz, joko – jolas mota honek kanpotarren aurrean euskaldunok dugun jarrera erakusten du (Etxebeste & Urdangarin, 2004). Alde batera utziz, aurrerago hobeto azalduko den, jolasak eskaintzen duen etxekoen arteko ereduaren jokabidea.

Jokoa “irabazteko” denbora pasatzat kontsidera daiteke eta plazerra aurkariaren kontra lehiatzeak eta irabazteak ematen du (Etxebeste & Urdangarin, 2004).

Jokoaren ezaugarri nagusia aipatutako lehia izan arren, ez dira joko guztiak lehiakorrak. Badira irabazle gabeko jokoak eta hauen garrantzia ere nabaria da. Bertan, norberaren burua besteen aurrean nabarmentzeko egiten diren jarduerak dira irabazle ezkutuarekin (Etxebeste & Urdangarin, 2004).

Horregatik jarraian aztertutako jardueren barne logikaren denbora aztertzea interesgarria da. Aurrera eramaten diren jardueren portzentaje nagusia, %58a memoriaduna da; hau da, denbora linealari erreferentzia egiten duena eta irabazle eta galtzaileak definitzen dituen jarduera lehiaduna. %42-a

berriz, memoriarik gabeko jarduerak dira irabazle eta galtzailerik ez dituen jarduerak hain zuzen ere.



2. Diagrama: Santo Tomas Lizeoko Gorputz Hezkuntzako jarduera motorren denboraren azterketa.

Joko lehiakorrek direla ikastolak gehien jorratzen dituen jarduerak ikus daiteke eta, beraz, jokabide lehiakorrek edukiko dituzten euskal hiritarrak sortzen dituela ondoriozta daiteke.


Esandako guztia laburbilduz, ikastolak Gorputz Hezkuntzako saioaren edukiekin bereziki euskal hiritar lehiakor, internazional, ireki eta publikoa gizarteratzen dituela ondorioztatu daiteke; euskalduna eta garrantzitsua den etxekoaren arteko ereduaren jokabidea baliogabetuz. Hori dela eta, euskal hiritar mota zehatz bat garatu egiten du ikastolak Gorputz Hezkuntzako saioetan.

6.2. GIZABANAKOAREN GARAPENA:

Jarduera guztiekin garatzen diren jokabide motor ezberdinek ikaslea akzioaren zentro bezala jartzen dute eta bere hezkuntza, bizipen eta ikasketaren prozesuaren protagonista da gizabanakoa. Izan ere, bere gain hartzen du erabaki motorren erantzukizuna. Horrela ematen da nagusiki gizabanakoaren garapena; beti ere prozesua gizartektze prozesu baten barruan ulertuta.

Idea hori buruan edukirik, ikastolan aurrera eramaten diren eduki eta jarduera guztiak bideratuta daude, ezinbestean, gizabanakoaren garapena bultzatzera ikaslea hezkuntzaren zentro izanik.

Gizabanakoaren adimen emozionalaren garapena era psikomotor batean, jokalariai jarduera motorretan bakarka parte hartuz, edo era sozomotor batean, besteekin interakzioa eskatzen duten jardueretan eman daiteke bakoitzak jokabide motor eta nortasun espezifikoak garatzen dituelarik. Hori dela eta, ikastolaren barne logikaren harremanak aztertzea ezinbestekoa da.



3. Diagrama: Santo Tomas Lizeoko Gorputz Hezkuntzako jarduera motorren harremanen azterketa.

Ikusi daitekeenez, jarduera psikomotorrak dira gehien lantzen direnak %61-aren nagusitasunarekin eta beraz jarduera sozomotorrak %39an besterik ez dira lantzen.

Jarduera psikomotorrei ematen zaien lehentasun horrekin, ikaslea bere buruarekin erlazioan jartzeko balio du, bestearekiko harreman operatiborik garatu gabe eta, hortaz, banakoen gaitasunak eta trebeziak garatu egiten dira. Norberaren mugak eta gaitasunak ezagutu egiten dira eta konfiantza lantzeko baliogarriak dira. Jarduera hauetan kidetasuna, errespetua eta talde lana bigarren maila batera pasatzen dira (Etxebeste & Urdangarin, 2004).

Jarduera sozomotorrekin berriz, guztiz kontrakoa ematen da, gizabanakoa besteekin interakzioan eta harremanetan dago eta, beraz, ematen diren komunikazioa eta kontra-komunikazioa egoerekin adimen sozomotorra garatu egiten da.

Aztertutako nagusiak diren jarduera psikomotorrekin, beraz, ondorioztatu daiteke ikasleen nortasun eta adimen emozional psikomotorrari garrantzia ematen zaion gizabanakoak garatzen dituela ikastolak. Eta beraz, ikastolan, individualismoaren joera da gehien bultzatzen den jokabidea.

6.3. LANKIDETZA ETA BIZIKIDETZA:


Ikastolaren egunerokotasunean giza harreman ugari ematen dira uneoro. Izan ere, ikastola harreman zentro bat da. Harreman hauek, ikastola osatzen duten pertsona ororen artekoa da; ikasle, irakasle, langile, guraso,... eta beraz, harreman hauek osasuntsu eta egokiak izatea hezkuntzaren arrakasta berma dezake.

Gorputz Hezkuntzako saioa aipatutako bi helburuak bermatzeko leku ezin hobea da; izan ere, erabiltzen den espazioa, giroa,... ahalbidetu egiten du talde kohesioaren garapena, gela arruntaren antolaketarekin alderatuta egoera ezberdin ugari bizitzen direlako. Talde kohesio hori ez da soilik ikasleen artean garatzen, baita ere, ikasleak irakaslearekin duten bizikidetzan ere landu egiten da eta harremana estuagoa bilakatzen da. Hori, Gorputz Hezkuntza ikasgaiak berez eskaintzen duen egoera lasaiagoa, atsegingarriagoa, erosoagoa eta nolabait informagoatik ematen da.

Lankidetzak eta bizikidetzak helburuak, Gorputz Hezkuntzan bereziki kooperaziozkoak diren jarduerak soziomotorrekin eta jolasak bultzatzen duen elkarbanatzearen ereduarekin lantzen dira nagusiki. Beraz, jarraian hori aztertuko da.

Aurretik aipatu den bezala, Gorputz Hezkuntzako jardueren gehiengoa psikomotorra da %61 hain zuzen eta soziomotorrak beraz, %39a. Horrek, lankidetzak eta besteekiko harreman garapena bigarren maila batean uzten du; gizabanakoaren garapen indibiduala bultzatuz.

Hala ere, jarduerak guztiak ez dira psikomotorrak, esan bezala, %39 alegia soziomotorrak dira eta ehuneko hauen barruan zein harreman mota garatzen diren aztertzea komenigarria izango litzake.



4. Diagrama: Santo Tomas Lizeoko Gorputz Hezkuntzako jarduera motorren harreman soziomotorren azterketa.

Ikusi daitekeen bezala, harremanen %1-a oposizio hutseko jarduerak dira, %48-a kolaborazio hutsekoak eta %51-a kolaborazio – oposiziozkoa.

Aipatutako emaitzak aztertuz gero, jarduera soziomotorren barruan lantzen diren %99-a kolaborazioko jardueri dagokie eta, beraz, jarduera horietan lankidetzak lantzen dela ondorioztatu daiteke. Izan ere, jarduera hauetan, nahiz eta %51ean oposizioa ere presente egon, lagunak diren talde kideen arteko kohesioa, talde lana, komunikazioa eta azken finean kooperaziozko adimen soziomotorra garatu egiten da.

Bizikidetzak helburuari dagokionez, hau lantzeko erarik egokiena, jolas jarduerak bultzatzen duten etxeko elkarbanatzearen jokabidea izango litzake. Jolasen bitartez, etxeko-arteko jarrera ezberdinak (familia, lagunak,...) elkarrekin bizitzen jartzen dira eta ondorioz elkarbizitzen eta bizikidetzan ikasten da (Etxebeste, 2007).

Lehenengo helburuan aztertu den bezala, euskal joko-jolas moten sistema praxiologikoaren azterketan, jolasaren baliogabetzea ematen dela ikusten da. % 2-a izanik soilik jolasek duten presentzia ikasturtean zehar.

Beraz, aipatutako guztia laburbilduz, lankidetzak eta bizikidetzak ezinbestean ematen dira ikastola harreman zentro bat baita. Gorputz Hezkuntzako saioetako edukiak aztertuz ondorioa bestelakoa da, ez da ikasleen bizikidetzak bereziki lantzen; bai ordea lankidetzak jarduerak

soziomotorrak lantzen direnean (3. diagraman ikus daiteken bezala gutxitan izaten dela %40).

6.4. GAITASUN ELEANITZA GARATU – HIZKUNTZAREN TRATAERA BATERATUA:

Hezkuntza Proiektuan helburu hau definitzerakoan, erreferentzia nagusiki atzerriko hizkuntzen garapenei (alemana, ingelera, frantsesa,...) eta hauek barneratzearen gaitasunari egiten dio. Horregatik, helburu hau Gorputz Hezkuntzan bigarren maila batean geratzen dela iruditu arren, errealitatean horrela ez dela aztertuko da jarraian.


Ikastolako Gorputz Hezkuntzako saioetan, euskara erabiltzen da. Ez edonolako euskara, baizik eta euskara formal eta teknikoa. Horrela izatea ezinbestekoa da informazioaren transmisio egoki bat emateko eta jardueren arauak, baldintzak,... finkatzeko.

Horrez gain, Gorputz Hezkuntzako ikasgaiak hizkuntzetako dramatizazioarekin batera, ikasgaiaren oso garrantzitsua den hizkuntza korporala edo hizkuntza ez – berbala landu egiten du.

Jarduera motor guztiekin lantzen diren jokabide motor ezberdinak ikaslearengan emozio oso ezberdinak bizitzea eragiten die eta, horren ondorioz, ezinezkoa da emozioak ez lantzea eta emozio horiek ez transmititzea. Jokabide motor eta emozio horiek irakasleak portaera motorrak behatu, irakurri, interpretatu eta esanahia aurkituz aztertuko ditu.

Jarduera motor egokienak soziomotorrak dira. Kolaborazio hutseko jardueretan kideen arteko komunikazioa egon behar da, kideen arteko koordinazio bat bilatu behar da eta kideek beren arteko zeinuak irakurri eta interpretatzeko gai izan behar dira. Oposiziozko hutseko jardueretan aldiz, kontrakoa gertatzen da, aurkariak ez du norberaren emozioen zeinuak irakurri behar eta horregatik kontra-komunikazio horretan zeinuak ezkututzen ahalegindu behar da jokalaria. Azkenik, kooperazio – oposiziozko jardueretan, aurreko bien konbinaketa bat ematen da, komunikazio – kontra-komunikazioa ematen da eta hortaz, kideen artean zeinuen interpretazio bat eman behar da baina aurkaria ohartarazi gabe.

Beraz, hizkuntz ez – berbal hau lantzeko era egokiena jardura motorren bitartez da. Arazoa, Gorputz Hezkuntzan motorrak ez diren jarduerak lantzen direnean gertatzen da. Izan ere, ez badago motortasunik ez dira jokabide motorrak egongo eta beraz ez da hizkuntza korporala landuko.



5. Diagrama: Santo Tomas Lizeoko Gorputz Hezkuntzako jardura moten azterketa.

Ikusi daitekeen bezala, jardueren gehiengoa %81-a motorra izan arren bada, hizkuntza ez – berbala lantzen ez duen jardura motor gabea, %19-a hain zuzen.

Jardura ez – motor hauek Gorputz Hezkuntzak gai – multzoei, edukiei, taldeko lan prestaketari eta azterketei eskaintzen dizkion orduak izaten dira.

Aipatutako guztia laburbilduz, Gorputz Hezkuntzan bai euskara formal eta tekniko baten bitartez eta bai hizkuntza korporalaren bitartez ikaslearen gaitasun eleanitza garatu egiten da eta garatzea oso garrantzitsua da.

6.5. INGURUGIROAREKIN JASANGARRITASUNA BULTZATZEKO KONPROMISOA GARATU:

Ingurugiroarekin jasangarritasuna bultzatzeko konpromisoa garatu ahal izateko ezinbestekoa da lehenik eta behin eskolak dituen hesietatik eta horrek ematen duen ziurtasunetik ateratzea eta inguruan dauden elementuen existentziaz jabetzea. Lehenik ezagutu egin behar da, ondoren kontzientzia sortzeko, azkenik jasangarritasunarekin konprometitu ahal izateko.

Hori egiteko, ikastolak ikasturtean zehar eta maila ezberdinetan, zenbait irteera antolatu egiten ditu eskolaren inguruko eta baita Gipuzkoako edo Euskal

Herriko bazterrak eta bitxikeriak ezagutzeko. Interes handiko irteerak dira, bereziki, gaiarekin zerikusi estua dutenak, Urnietako birziklapen fabriketara, Añarbeko ur garbiketaz arduratzen diren ur – zikinen sarera edo Zumaiako arrain-haztegia egiten diren irteerak.

Ikastolak kontu eta intentzio handiarekin erabakitako irteera hauekin ikaslea jasangarritasun horren ideia hurbiltzea du helburu.

Jasangarritasunaren aldeko irteera hauen apustua egiten den arren, ikastolaren barneko instalakuntzak, parkeak eta patioak ikusi besterik ez da egin behar ohartzeko ikastola barnean ez dela ideia horren aldeko apustua egiten.




2. irudia: Santo Tomas Lizeoaren jolastokia.

Aipatutako ikastolako barne eremuak transformatu egin dituzte ingurune naturalak guztiz asfaltatzen eta interesen arabera jarduera espezifiko batzuetarako markatzen. Ingurune naturaletik espazioa hartu eta desbirtualizatuz, eta hori helburua ez bazen ere, ikastola barnean jasangarritasunaren kontrako ideia bultzatu egin da.

Eremu ziur eta babes hori sortzen den momentutik, Gorputz Hezkuntzako irakasleak proposatzen dituen jarduera logiko guztiak ziurtasunean egiten direnak dira. Ikastetxearen eremu fisikoak asko zailtzen bai du ziurgabetasunean egiteko joko – jolasak aurrera eramanez ahal izatea. Hala ere, horrek ez du esan nahi jarduera ziurgaberik egin ez daitezkeenik (kometaren adibidea esaterako).

Barne logikaren espazioa aztertu egiten bada ez da harritzekoa izango eremu ziurraren jarduera motorrak soilik garatzen direla ikustea.




6. Diagrama: Santo Tomas Lizeoko Gorputz Hezkuntzako espazioaren erabileraren azterketa.

Emaitza hauek ikusita Gorputz Hezkuntzan ematen den adimen motor espazialaren erabateko baliogabetzea ematen dela ondoriozta daiteke. Ingurune ziurreko espazioak ez bai du interpretatu eta deskodifikatu beharreko informazio gehigarririk edo “arriskutsurik” eskaintzen.

Jasangarritasuna garatzearen ideia beste ikuspuntu batetik ere azter daiteke; materialaren birziklapenaren ikuspuntutik hain zuzen. Gorputz Hezkuntzako ikasgaietan, saioetarako eta jardueretarako espezifikoa den materiala erabiltzen da. Esaterako, pilotadun objektua eskatzen duten kirol joko bakoitzak, bere ezaugarrietara hobekien egokitzen den baloi – pilota bat erabiltzen du eta beraz gutxitan erabiltzen diren pilota mota ugari pilatzen dira Gorputz Hezkuntzako aretoen armairuetan. Espezifikotasun horrek birziklapenaren aurkako ideia ere bultzatu egiten du.

Material guzti hori erosteak daukan kostuari aurre egin arren, Gorputz Hezkuntzan aurrera eramaten diren jarduera gehienak objektudun gabekoak izaten dira. Gutxigatik bada ere. Jardueren %52-a material edo objekturik gabeko jardueri eskaintzen zaie eta geratzen den %48-a materialdun edo objektudun jardueri.



7. Diagrama: Santo Tomas Lizeoko Gorputz Hezkuntzako objektuen erabileraren azterketa.

Esandako guztiaren ondoren, ondorioztatu daiteke, ikastolak jasangarritasunaren apustua egiten saiatzen den arren (antolatzen dituen irteera ezberdinak aurrera eramanez), egunerokotasunean ez duela horrelako jokabiderik garatzen eta bultzatzen; behintzat Gorputz Hezkuntzako saioetan.

6.6. HELDUTASUN TEKNOLOGIKOA:

Ikastolak baliabide teknologiko ezberdinak hezkuntzan integratzea helburu du. Natibo digitalak diren ikasleak, teknologia hauek erabiltzen eta kudeatzen ikastea bilatzen da, euren eguneroko komunikazio eta lanak era ezberdin batez aurrera eraman ahal izateko.

Ikastolak, heldutasun teknologiko helburu hau lortzeko hezkuntzaren digitalizazioaren aldeko apustu argia egiten ari da. Jada, ikasleek lanak eta beren apunteak lortzeko interneteko plataforma ezberdinak erabiltzen dituzte, baita irakasleek ere ikasleekin harremanetan jartzeko. Irakasleen aldetik, kasu askotan, arbela proiektorearengatik ordezkatu egin dute digitalizazioaren adibide argi bat dena.

Garapen prozesu hau ez da hor geratzen, haratagoa doa eta garatzen jarraitzen ari da. Urte gutxiren buruan, Bigarren Hezkuntzako ziklo guztia digitalizatzeko helburua jarri du ikastolak eta hori gertatuz gero, koaderno eta liburuak portatil indibidualengatik ordezkatuko lirateke.

Gorputz Hezkuntzan ere, teknologia berrien erabilpena sustatzen ari da. Garaiko teknologia berriek eskaintzen dituen abantailaz baliatzen da irakaslea bere saioak aurrera eramateko. Aipatutakoaren adibidea da, esaterako,

erabiltzen dituen portatila (gailu eramangarria) eta proiektorea. Baita, egunerokotasunean erabiltzen dituen tresna ezberdinak ere: kronometroak, anplifikadoreak,...

Irakasleak ikasleekin kontaktuan egoteko, informazio trukaketa egoteko eta jarraipena egiteko, beste ikasgaietan bezala, lehendik aipatutako interneteko plataforma erabili egiten du. Bertan, adibidez, urteko plangintza oso bat garatu behar dute ikasleek (entrenamendu plangintza bat bezala) excell aplikazioan ikasten duten gaiaren arabera (indarra, malgutasuna, abiadura,...).

Ikasleek ere, Gorputz Hezkuntzako saioetan, helburu hau jorratu egiten dute erabiltzen duten material ezberdin eta espezifiko eta material teknologikoei esker. Azken honen adibidea da, gorputz adierazpeneko dantza saioak prestatzerakoan taldeka banatzen dituzten ordenagailu eramangarri txikiak.

Informazio eta komunikazio euskarri berri hauek, mundua transformatu egin dute eta egiten ari dira eta horrekin batera eskatzen diren gorputz teknikak ere moldatuz doaz (ez dugu ahaztu behar gorputz teknikak eraikin kulturalak direla). Beraz, etorkizun ez oso urruti batean, agian, digitalizazioak eraginda ikasgai honetan landu beharreko gorputz teknikak aldatu egin litezkeela eta beraz, teknologia berriek eskaintzen duten, wii – fit edo joko birtual motorrak gure ikasgaietan ere jorratu beharko liratekeela.

6.7. ANIZTASUNAREN TRATAERA:

Aniztasunaren trataeraren lanketa ikastolaren beste helburu nagusietako bat da. Aniztasun hori, bizitzan eta errealitatean ematen den bezalaxe, ikastolan ere ematen den egoera / gertakizun bat bezala ulertzen du ikastolak eta horrekin bizitzen ikastea du helburu.

Sexu ezberdintasunak ematen duen aniztasuna lantzeko eta horrekin bizitzen ikasteko Gorputz Hezkuntzan Joseba Etxebestek definitutako joko – jolasen sailkapen praxiologikoa erabili daiteke. Bertan, jokoak gizonezkoen jardueratzat definitzen dira, jolasa – jokoa aldiz emakumeen jardueratzat eta azkenik jolasak, etxekoen arteko emakume eta gizonezkoen arteko elkarbizitzarako jardueratzat (Etxebeste, 2007).

Hori ikusita, ondoriozta daiteke, sexuen arteko aniztasuna jorratu nahi bada, Gorputz Hezkuntzako saioetan, bereziki, jolasak eskaintzen duen bizikidetzako jarduerak aukeratu beharko liratekeela. Izan ere, hauen ezaugarri nagusia elkarbizitzarako, rol ezberdineko pertsonekin talde bat osatzen dela da.

Ikastolaren helburua argia izan arren, hasieran ikusi den bezala, jolas jardueren baliogabetze bat ematen da, preferentzia nagusia eman ez gizonaenak kontsideratuak diren jokoei. Hori dela eta, ondorioztatu daiteke Gorputz Hezkuntzako saioetan ez dela sakontzen aztertzen ari garen helburu hau jorratzerakoan.

7. ONDORIOAK

Lanari amaiera emateko eta hasieran ezarritako helburuari erantzuna emanaz ondorioztatu daiteke orokorrean aztertutako Santo Tomas Lizeoko 4.DBHko Gorputz Hezkuntzaren programak ikastolako Hezkuntza Proiektuaren ildo nagusiak errespetatu eta landu egiten dituela, zenbait helburuen salbuespen kenduta.

Lantzen eta lantzen ez diren helburuekin eta hauek lantzeko erarekin, aurretik egindako azterketa praxiologikoarekin ikusi den moduan, ikastolak euskal hiritar lehiakor, internazional, ireki eta publikoak gizarteratzen dituela ondorioztatu daiteke. Non ikasleen nortasun eta adimen psikomotorrak garatzen diren bereziki, indibidualismoaren jokabide argia izango duten hiritarrak. Jarduera psikomotorren nagusitasun horrek ez du esan nahi, ordea, ikasleen arteko lankidetzak lantzen ez denik praktikan jartzen diren jarduera soziomotorren gehiengoa kooperazio edo kooperazio – oposiziozko jarduerak bai dira. Hala ere, jolasen baliogabetzea egonda, jarduera hauek eskaintzen duten bizikidetzaren atal batzuk landu gabe geratzen dira eta, beraz, lankidetzak – bizikidetzak jokabidea neurri batean garatu egiten da soilik. Horrez gain, gizartearen garapena eta joera berriak ikusita, ikasleen etorkizunean ezinbestekoa izango den gaitasun eleanitza eta heldutasun teknologikoaren garapenak pisu eta garrantzia handia hartzen dute Gorputz Hezkuntzako saioetan.

Aurretik aipatutako lantzen ez diren, Hezkuntza Proiektuko helburuak, ingurugiroaren jasangarritasuna bultzatzeko konpromisoaren garapena eta aniztasunaren trataera dira. Nik behatu eta aztertutakoaren arabera, hori gertatzearen arrazoiak ezberdinak izan daitezke. Alde batetik, eta nire ustez garrantzitsuena, ikasgai bakoitzean helburu nagusi bati edo batzuei ematen zaie garrantzia eta beste helburuak beste ikasgaietan lantzeko utziz edota bigarren mailako garrantzia emanaz. Bestetik, irakaslea, aurretik aipatu dudana bezala pedagogiako ikasketak dituen urteetako esperientzia handiko irakaslea da eta beraz ikastola eta bere ideologia eta norabidea primeran ezagutzen duen arren, ez du praxiologiaren zientzia ezagutzen ezta honek eskaintzen

duen transferentzia hain zuzena ulertzen ere. Horregatik, azterketan azaldu bezala zeharka landu daitezkeen helburu hauei ez dio garrantzirik ematen.

Egoera ikusita, falta diren helburu horiek modu egokian lantzeko nire proposamena honakoa izango litzateke: alde batetik, programazioetan ziurgabetasunean egindako natur jarduerak (orientazio jolasak adibidez) sartuko nituzke jasangarritasunaren aldeko konpromisoa garatzeko eta bestetik, jolasei pisu handiagoa emango nieke aniztasunaren trataera garatzeko. Izan ere, azken hauek rol ezberdinak dituzten pertsonen arteko bizikidetzak jokabidea garatzen dute. Hala ere, ez litzake helburua lantzeko era bakarra izango jolas eraldatuak, jolas kooperatiboak,... horretarako ere oso tresna erabilgarriak bai dira eta horietaz baliatu liteke irakaslea. Horrez gain, euskal kulturaren propioak diren kirol tradizionalei ere garrantzi handiagoa emango nieke lantzen den hiritar euskaldun internazional horri hemengo euskaldun hiritar zentzua ere emateko. Gainera eta bukatzeko, jokabide motorrik garatzen ez dituzten jarduera ez-motor guztiak, programaziotik kentzen ahaleginduko nintzake.

Ikerketa lan txiki honekin, praxiologiaren zientzia erabilita eta azterketa sinple bat eginaz, frogatu ahal izan da nola Gorputz Hezkuntzako norabidearen ondorio orokor eta nagusiak atera daitezkeen. Hori izan da nire aburuz, lan honen ekarpen eta lorpen nagusia. Kasu honetan, Hezkuntza Proiektuaren helburuak 4.DBHko Gorputz Hezkuntzako programazioan ea betetzen diren aztertu da baina beste edozein motatako azterketa egiteko baliogarria ere bada (ikastolako Gorputz Hezkuntza maila guztiaren azterketa, irakasle ezberdinen arteko Gorputz Hezkuntza ikuspegia, ikastola ezberdinen arteko Gorputz Hezkuntzako konparaketa, herrialde bateko Gorputz Hezkuntzaren egoera,... adibidez). Azterketa honekin gainera, ez da soilik idatzita dagoenaren azterketa egiten, baita ere helburuetan jartzen ez dena baina benetan lantzen dena aztertzeko ere baliogarria da; curriculum ezkutua deritzonaren azterketari buruz ari naiz. Esandako guztiaz gain, erabilgarria izan liteke ere kurtso oso baten programazioa antolatu ahal izateko Alfredo Larrazek (2004) Aragoien egiten duen bezala. Beraz, lantzen ez diren helburuak lantzeko lehen proposatutako jardueraz gain, zientzia berri honen erabilpena eta aplikazioa ere ezinbestekotzat joko nuke Gorputz Hezkuntzako ikasgaietan.

Nik egindako ikerketa lan honek baditu hala ere, kontutan hartu beharreko muga eta limitazio batzuk. Garrantzitsua da azpimarratzea praktikak iraun duten bitarteko (4 hilabete) behaketa lana izan dela eta, beraz, ez dela kurtsoaren osotasun guztia behatu. Hortaz, behatu ez diren saioak, irakasleak emandako ikasketa planarekin eta bere lantzeko metodologiaren arabera aztertu ditut. Horrek noski, azterketaren datuen zehaztasuna pixka bat kaltetu dezake; izan ere, behatutakoaren arabera eta ematen diren egoeren arabera beti ezberdintasunak edo aldeak egoten dira aurreikusitako planaren eta egiten denaren artean. Hots, planifikatutakoa inoiz ez da ehuneko ehunean aurrera ateratzen pentsatuta zegoen bezala. Horrez gain, maila bakar bateko Gorputz Hezkuntzaren azterketa egin dut eta beraz lortutako emaitzak soilik maila horri dagozkionak dira. Horrek ez du esan nahi beste mailetan eta beste ikasgaietan helburu eta norabide berdinak jarraitzen direnik eta hori ikertzea ere oso garrantzitsu eta interesgarri litzakeela pentsatzen dut. Aurreko guztia kontutan hartuta, etorkizunean ikerketa hauekin jarraitzeko aurkeztutako lana abiapuntua besterik ez izatea espero dut beti ere etorkizuneko ikerketei zehaztasun eta sakontasun handiagoa eskainiz.

Bukatzeko lan honek niri pertsonalki egindako ekarpenak azpimarratzea gustatuko litzaidake. Alde batetik, graduan zehar ikasitako Gorputz Hezkuntzaren esanahia hobetu ulertzeko baliogarria izan zait eta, era berean, ikaslearen gizartekotze prozesuan ikastolak eta Gorputz Hezkuntzak duen garrantzi handia era argiagoan ikusteko aukera eduki dut. Gainera, lanak hezkuntzaren alorrean gaiarekiko ikuspuntu kritiko bat garatzen eta hausnarketa sakona egitea ahalbidetu dit. Hori lagungarri izango zait etorkizunean tokatuko zaidan ikastolara ahalik eta era egokienean ikastetxearen ideologiara, ikasleen ezaugarrietara eta edukiko ditudan baliabideetara egokitzen eta denen beharrak asetzen, baita nireak ere. Beraz, etorkizunean adar honetan buru belarri lanean jarraitzeko gogoak piztu zaizkit, honako lana izanik ibilbide luze baten hastapena besterik ez.

8. BIBLIOGRAFIA:

- Berger, K. S., & Thompson, R. A. (1997). *PSICOLOGÍA DEL DESARROLLO: Infancia y adolescencia*. (pp. 518–616). Madrid: Panamerica.
- De Marimon, J. (2004). Los sistemas praxiológicos adaptativos. In F. Lagardera & P. Lavega (Eds.), *La ciencia de la acción motriz* (pp. 101–118). Lleida: Edicions de la Universidad de Lleida.
- Dugas, E. (2004). Lógica de situaciones motrices y transferencia de aprendizajes en la educación física y los deportes. In F. Lagardera & P. Lavega (Eds.), *La ciencia de la acción motriz* (pp. 181–202). Lleida: Edicions de la Universidad de Lleida.
- Dugas, E., During, B., & Madueño, M. G. (2006). La inteligencia motriz en la escuela. *Educación física y ciencia*, 81–95. Retrieved from http://www.memoria.fahce.unlp.edu.ar/art_revistas/pr.136/pr.136.pdf
- Durkheim, É. (1975). *Educación y sociología*. Barcelona: península.
- Etxebeste, J. (2007). Euskal Curriculum, gorputz hezkuntza eta “adituen” ekarpena. In N. Alzola (Ed.), *JAKINGARRIAK. Heziketa fisikoa eskolan (I)* (pp. 40–51). Eskoriatza: Mondargon.
- Etxebeste, J., & Urdangarin, C. (2004). Reflexiones sobre la educación física de hoy a la luz de las características de la cultura tradicional vasca. In F. Lagardera & P. Lavega (Eds.), *La ciencia de la acción motriz* (pp. 119–138). Lleida: Edicions de la Universidad de Lleida.
- Hoffman, L., Paris, S., & Hall, E. (1996). *PSICOLOGÍA DEL DESARROLLO HOY* (pp. 1–84). Madrid: S.A. MCGRA.
- Lagardera, F. (2004). Elogio de Pierre Parlebas. In F. Lagardera & P. Lavega (Eds.), *La ciencia de la acción motriz* (pp. 13 – 18). Lleida: Edicions de la Universidad de Lleida.
- Lagardera, F., & Lavega, P. (2003). *Introducción a la praxiología motriz* (pp. 73 – 75 / 123 – 131). Barcelona: Paidotribo.
- Larraz Urgelés, A. (2004). Los dominios de acción motriz como base de los diseños curriculares en educación física: el caso de la comunidad de Aragón en educación primaria. In F. Lagardera & P. Lavega (Eds.), *La ciencia de la acción motriz* (pp. 203–226). Lleida: Edicions de la Universidad de Lleida.
- Lavega Burgués, P. (2004). Aplicaciones de la noción de conducta motriz en la enseñanza. In F. Lagardera & P. Lavega (Eds.), *La ciencia de la acción motriz* (pp. 157–180). Lleida: Edicions de la Universidad de Lleida.

Le Bolulch, J. (1997). *El movimiento en el desarrollo de la persona* (pp. 309–339). Barcelona: Paidotribo.

Parlebas, P. (2004). Discurso del acto de investidura a doctor “honoris causa” por la Universidad de Lleida. In F. Lagardera & P. Lavega (Eds.), *La ciencia de la acción motriz* (pp. 19–29). Lleida: Edicions de la Universidad de Lleida.

Parlebas, P. (2012). *Juegos, deporte y sociedades. Léxico de praxiología motriz*. Barcelona: Paidotribo.

Santo Tomas Lizeoa. (2014). *Eguneraketa - Etorkizuna*.

Tejerina, B., Carbajo, D., & Martínez, M. (2012). El fenómeno de las lonjas juveniles. Nuevos espacios de ocio y socialidad en Vitoria-Gasteiz. *Informes del Ceic*. Retrieved from <http://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/es/57/42/45742.pdf>